21ean, larunbatarekin / Samedi 21 • 10:00 – Urririk / Gratuit

Aupa Etxebeste!-k 10 urte + mahai-ingurua / conférence :

Euskarazko zinema berpiztu duen hamarkadari behako bat.

Regard sur une décennie qui a relancé le cinéma basque.

Filma eta mahai-ingurua . Film (en basque) suivi d'une conférence à 11h30 (avec des traductions simultanées en français)



> 10:00 – Aupa Etxebeste!

Patrizio Etxebeste, bonetak egiten dituen enpresa baten buru da eta auzapezgai. Ohartzen da bere diru guzia xahutu duela. Horregatik, familiak ezin du Marbellara oporretara joan urtero bezala. Herriko nehor ez dadin hortaz ohar, hilabete osoan etxean kukuturik geldituko dira.

Patrizio Etxebeste, patron d'une fabrique de bérets et candidat à la mairie de son village, s'aperçoit qu'il n'a plus un sou. Cette année, les vacances en famille à Marbella semblent compromises. Il faut sauver les apparences : ils s'enfermeront chez eux durant un mois.

> 11:30 – Mahai-ingurua / Table-ronde

Hamar urte ospatzen ditu Aupa Etxebeste! *filmak aurten. Asier Altuna eta Telmo Esnalen lehen film luzeak oihartzun handia eman zion Euskal Zinemagintzari eta geroztik, aurten Amama estreinatu arte, kasik urte guziez euskarazko film bat estreinatu da. Historiako hoberena izan da, beraz, azken hamar urte hauetako uzta euskal zinemarentzat.*

Aupa Etxebeste! *ateraz geroz, oraino minoritarioa den zinemagintza honek izan duen eboluzioa, oraingo egoera eta geroari begira dituen arazo eta perspektibak aztertuko dituzte hiru parte hartzaileek,* **Josu Martinezek** *gidaturik.*

Aupa Etxebeste!, *le premier long-métrage d'Asier Altuna et Telmo Esnal fête son dixième anniversaire. La résonance que ce film a donné au cinéma basque a relancé la production cinématographique. Depuis lors, presque chaque année a vu la sortie d'un film en basque, jusqu'à la présentation d'Amama cette année. La moisson de cette dernière décennie a donc été la meilleure de l'Histoire.*

La discussion animée par **Josu Martinez** *portera sur l'évolution, depuis la sortie d'*Aupa Etxebeste!, *de ce cinéma encore minoritaire, la situation actuelle ainsi que les obstacles et perspectives pour les années à venir.*

Hizlariak / Intervenants:

Asier Altuna • film egilea / réalisateur (Aupa Etxebeste! (2005), Bertsolari (2009) eta Amama (2015))

Miren Manias • Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlaria eta euskal zineman aditua / chercheuse à l'Université du Pays Basque et experte en cinéma basque

Ion Lopez • Euskadiko Filmategiko zuzendari-kontserbatzaileak / directeur-conservateur à la Filmothèque Basque

Gaualdiak / Les soirées

20an, ostiralarekin / Vendredi 20 • 23:00 – 5 €

Zoophonic (Safety Last!) / Ttattola

Zoophonic musika taldea 2008an sortu zen Montpeyroux-n. Post-rock estiloa eta musika elektronikoa nahasten ditu, eta Zinegin-eko, Safety Last! *film mutuaren soinu-banda prestatu du, zine-kontzertu baten eskaintzeko. Zinemaren klasiko horri musika gehituz, ikus-entzulea arrunt Harold Lloyd-en munduan murgilduko da.*

Harold, bere maitea herrian utzi gazte bat da etorkizun hobe baten xerka joan dena hirira. Han, saltoki handi batzuetan lan egiten du, baina bere hobetzeko grina ez doa errealitatearekin bat. Halere, bere neska-lagunari dena ezin hobeki doala erraten dio, eta dendako nagusi gisa aurkezten du bere burua. Neska hirira bisitan doanean afera konplikatzen da.

Zoophonic est un groupe de musique formé en 2008 à Montpeyroux. Le groupe, qui mélange post-rock et musique électronique, offrira un ciné-concert à Zinegin avec le film Safety Last!. *La mise en musique de ce classique du cinéma plonge véritablement le spectateur dans l'univers d'Harold Lloyd.*

Harold, parti pour Los Angeles pour faire fortune, survit grâce à des petits boulots. Il a menti à sa fiancée sur sa situation financière réelle, et, lorsque celle-ci vient le rejoindre en ville, il parvient à cacher sa situation en se faisant passer pour le directeur du magasin où il travaille. Mais les choses ne se passent pas comme prévu.

21ean, larunbatarekin / Samedi 21 • 23:00 – Urririk / Gratuit

Kliklap – Zinequizz gaua

23:00etatik goiti, giro sutsua Ttattolan: Kliklap film labur lehiaketako irabazle eta parte hartzaileak sariztatuko dira. Baina aurten berrikuntza bat: Zinequizz handia! "Zergatik Al Pacino eta Robert De Niro-k ez dute eszenarik elkarrekin The Godfather II *(Goxaita II) filman? 80 egunean filmaren egileek zoin film aurkeztu zuten iaz Zineginen? Erantzunak balin badazkizu, laukote bat osatu eta KliKlap gaualdira etorri: zinemako sartze ainitz irabazteko.*

A partir de 23h : ambiance de feu à Ttattola : remise des prix de la compétition du court-métrage Kliklap. Nouveauté cette année : un grand Zinequizz ! « Pourquoi Al Pacino et Robert de Niro ne partagent aucune scène dans The Godfather II *(Le Parrain II)? Les réalisateurs de 80 egunean avaient présenté leur dernier film à l'édition 2014 de Zinegin. Lequel?*

Si vous connaissez les réponses, composez une équipe de 4 et venez à la soirée KliKlap: nombreuses places de cinéma à gagner.

Sar Hitza / Présentation

2012an Eihartzea Kultur Etxeak, Ttattola gaztetxeak eta Haritz Barne zinema gelak Zinegin Festibala sortu zuten elkarlanean. Geroztik, bere hastapeneko xedea beti atxiki du: euskarazko filmen hedatzea eta euskal kulturak bizitzeko behar duen hatsgune baten proposatzea. Aurten ere Hazparnen ikusten ahalko dira fikzio eta dokumentalak, labur edo luzeak; hauen artean beldur ikarak emanen dizkigun film kolektibo bat, inarrosiko gaituen lagunen arteko maitasun istorio bat, marrazki bizidun ekologista bat edo identitateari buruzko hausnarketa bat.

Aurten, transmisioa gazteekin ere landuko da, Xalbador Ikastegiko ikasleek Kanboko L'Aiglon zinema gelan Aupa Etxebeste! filmarekin irri eginen baitute.

Hastapeneko helburuei jarraikiz, festibalak zine-kontzertu, bideo-poteo edo gaualdien bidez herrian dinamika kultural baten sustatzen segituko du. Iaz Lurra omendu ondotik, zinemaldia parte hartzaile egiten duen KliKlap film labur lehiaketaren gaia Sua da aurten.

«Sua pizteko beldurrez, hozten gira maiz» dio Ttattolako murru batek. Zatozte Zineginen berotzera!

Depuis sa création en 2012, fruit de la collaboration du Centre Culturel Eihartzea, du gaztetxe Ttattola et du cinéma Haritz Barne, le festival Zinegin Festibala continue à travailler dans le même sens : la diffusion de films en basque et la création d'une bulle d'oxygène pour la culture basque. Au programme, des fictions et des documentaires, des long-métrages et des court-métrages, dont voici quelques propositions : un film collectif à vous donner la chair de poule, une émouvante histoire d'amour, un dessin-animé écologiste ou une réflexion sur l'identité.

Cette année, la transmission du cinéma basque se fera également auprès des jeunes, puisque les élèves du Collège Xalbador pourront rire avec Aupa Etxebeste! au cinéma l'Aiglon de Kanbo.

En accord avec les objectifs fixés au début, le festival continue à encourager une dynamique culturelle dans le village, avec un ciné-concert, un vidéo-poteo et des soirées. Après avoir rendu hommage à la Terre, cette année le thème de la compétition du court-métrage KliKlap est le Feu. Venez vous réchauffer !

Eskerrak / Remerciements

Zabalki elkarteari, Haritz Barne zinema gela biziarazten baitu, Jean-Marie Garat-i, Kanboko zinema gelari, Hazparneko ostatuer, Lurramari, Waaz estudioari, festibala denboran eta aitzin laguntza bat ekarri dutener eta hizlari guzier.

A l'association Zabalki, qui fait vivre le cinéma Haritz Barne, à Jean-Marie Garat, au cinéma L'Aiglon, aux bars et restaurants d'Hasparren, à Lurrama, au studio Waaz et à ceux qui ont apporté une aide durant ou avant le festival ainsi qu'à tous les intervenants.

Zinegin Festibala

info@zinegin-festibala.eu
www.zinegin-festibala.eu
Tél : 0 (033)7 83 72 40 00

Ordutegiak / Horaires

Filmak / Les Films	Prezioa Prix	Irau. Durée	11/19	11/20	11/21	11/22
80 egunean	3 €	105'	21:00			
Bisaiak: jauziaren aurpegiak	3 €	70'		18:00		
Txetxe ala hil	Ø	36'		19:30		
Euskal Harriaren ABD-ak	3 €	126'		21:00		
Aupa Etxebeste!	Ø	97'			10:00	
Beltzean mintzo	3 €	49'			14:00	
Herensugeak: Haritzaren Bihotza	Ø	80'			16:00	
Arrakala	3 €	79'			16:00	
Gure Sor Lekuaren bila	3 €	75'			18:00	
Amama	3 €	103'			21:00	
Bingen	3 €	95'				10:00
Bideo - Poteo						12:00
Margodantza Galtzerdi berdeak	Ø	16' 15'				15:00
Gernika Batailoia	3 €	70'				16:00
Izarren argia	3 €	97'				18:00
Pikadero	3 €	98'				21:00

Gaualdiak / Les soirées	Prezioa Prix	11/19	11/20	11/21	11/22
Zoophonic *(Safety Last!)* / Ttattola	5 €		23:00		
Kliklap – soirée Zinequizz gaua	Ø			23:00	
Aupa Etxebeste!-k 10 urte + mahai-ingurua / conférence :	Ø			10:00	

Lekuak / Les lieux

Cinéma Haritz Barne zinegela : 7, rue Jats *karrika – Hazparne*

Ttattola gaztetxea : Place Harana *plaza – Hazparne*

Hazparneko Lurraldea / Maison de la Communauté de Communes
54, rue F. Jammes *karrika - Hazparne*

Azaroaren 19tik 22ra
19 au 22 novembre 2015



Zinegin
FESTIBALA

EUSKAL ZINEMALDIA
FESTIVAL DU CINÉMA BASQUE
Hazparne

Filmak :

AMAMA • PIKADERO • 80 EGUNEAN • BISAIAK, JAUZIAREN AURPEGIAK • BINGEN EUSKAL HARRIAREN ABD-ak • BELTZEAN MINTZO AUPA ETXEBESTE! • GERNIKA BATAILOIA • IZARREN ARGIA HERENSUGEAK: HARITZAREN BIHOTZA • MARGODANTZA • GALTZERDI BERDEAK GURE SOR LEKUAREN BILA • TXETXE ALA HIL • ARRAKALA

« *Zuzendari ainitzen presentziarekin*
En présence de nombreux réalisateurs »

80 EGUNEAN

11/19
21:00 - (105')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño - 2010
Hizkuntza / Langue : euskara
Azpitituluekin / Sous-titres : français



Axun, 70 urteko emaztea, alabaren senar ohiaren zaintzera joanen da ospitalera. Harrituko da ohartuko delarik ondoko eria zaintzen duen emaztea Maite dela, gazte denborako lagun handia, 50 urte luzez ikusi ez duena. Gaztetan zuten "kimika" oraino bizirik dela ohartuko dira berehala. Axun, Maite lesbiana dela ohartuko da. Bere sentimenduak kordokan ezarriko ditu Axunek: zer segitu, burua ala bihotza?
Axun,une femme de 70 ans, se rend à l'hôpital au chevet de l'ex-mari de sa fille. A sa grande surprise, la garde-malade du lit voisin n'est autre que Maite, son amie d'enfance qu'elle n'a pas revue depuis 50 ans. La complicité est toujours là et l'alchimie opère à nouveau. Axun découvre que Maite est homosexuelle. Ses sentiments la laissent alors en proie au doute : que suivre, sa tête ou son cœur ?

BISAIAK, JAUZIAREN AURPEGIAK



11/20
18:00 - (70')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Ibai Agirrebarrena-Mendiboure - 2015
Hizkuntza / Langue : euskara & français
Azpitituluekin / Sous-titres : euskara & français

1980-1990. hamarkadetan, Euskal Herriko gatazkaren baitan, frantses nazionalitatea zuten ibilbide arrunteko pertsona batzuk, sinesgaitzak ziren eta oraino diren gertakari batzuen protagonista bilakatu ziren. Nor ote dira pertsona horiek? Zer egin ote zuten? Zerk eragin ote zuen aldaketa erraldoi hori? Nolaz egin zuten jauzia?
Au cours des années 1980-1990, des personnes de nationalité française au parcours ordinaire devinrent les acteurs d'événements qu'on peut encore qualifier d'extraordinaires. Qui sont ces personnes ? Et pourquoi franchirent-elles le pas ?


TXETXE ALA HIL

11/20
19:30 - (36')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 0 €

Zuzendaritza / Réalisation : Garaziko talde bat - 2015
Hizkuntza / Langue : euskara
Azpitituluekin / Sous-titres : français

EHZ festibalean "txetxeno" gisa lan egin nahi duen neska batek froga batzuk gainditu behar ditu onartua izateko.
Une fille qui veut travailler au poste de "tchéchène" au festival EHZ doit passer des épreuves pour être acceptée.

EUSKAL HARRIAREN ABD-ak



11/20
21:00 - (126')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : lan kolektiboa – œuvre collective - 2015
Hizkuntza / Langue : euskara
Azpitituluekin / Sous-titres : français

Euskal Harriaren ABDak film kolektiboan, zinegile profesionalak, kategoria xumean aritzea usatuak diren amateurrak eta lehenbiziko aldiz kamera bat hartu eta film labur bat grabatzeko abenturan murgildu diren jende motibatu inkontzienteak. Beldur, fantasia edo zientzia fikziozko 26 film labur, film luze batean bilduak. Aitzina!.
Le film collectif Euskal Harriaren ABDak regroupe des réalisateurs professionnels, des amateurs novices ainsi que des personnes inconscientes mais motivées qui ont pris une caméra dans les mains pour la première fois. Courts-métrages d'horreur, fantastiques ou de science-fiction qui sont regroupés ici dans un long-métrage.

BELTZEAN MINTZO



11/21
14:00 - (49')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Jon Sarasua - 2015
Hizkuntza / Langue : euskara & castellano
Azpitituluekin / Sous-titres : euskara

Zer ari da gertatzen Ameriketako hizkuntza handiekin? Laguntzen ahal ote ditu euskal esperientziak beren hizkuntzaren berreskurapenaren prozesuan? Lehen aldiz 7 hizkuntza komunitateko 14 pertsonek euskararen herriari buruzko beren gogoetak eskaini dizkigute. Hizkuntza komunitate hauetakoak dira: Kitxua, nasa, nahuatl, kaqchiquel, aimara, maputxe eta maia yukatek.
Qu'advient-il des grandes langues d'Amérique ? L'expérience basque peut-elle les aider dans leur processus de récupération linguistique ? Pour la première fois, 14 personnes de 7 communautés linguistiques nous offrent leurs réflexions sur le pays de l'euskara. Communautés représentées : Quechua, Nasa, Nahuatl, Cakchiquel, Aymara, Mapuche, et Maya Yucathèque.

HERENSUGEAK: HARITZAREN BIHOTZA



11/21
16:00 - (80')
Herri Elkargoaren Egoitzan
Maison de la com. de com.
Prezioa / tarif : 0 €

Zuzendaritza / Réalisation : Ricardo Ramón eta Ángel Izquierdo - 2012
Hizkuntza / Langue : euskara

Fenomeno bitxi batzuek Herensugearen mendixkako klima itzulipurdikatu dute. Tenperaturen jauste lasterrak lurraldea hotzean eta iluntasunean murgildu du. Oihana hilzorian da baina Robin ipotx basozain ttipiak jainkoen laguntza galdeginen du bizia mehatxatzen duen gaitz horri buru egiteko.
D'étranges phénomènes ont bouleversé le climat dans la colline du Dragon. La chute brutale des températures a plongé le territoire dans le froid et l'obscurité. La forêt se meurt mais Robin le petit elfe gardien de la forêt va implorer l'aide des dieux afin de combattre cette malédiction qui menace la vie.

ARRAKALA




11/21
16:00 - (79')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : lan kolektiboa / œuvre collective – 2015
Hizkuntza / Langue : euskara & castellano
Azpitituluekin / Sous-titres : euskara

Zer da hetero-araua? Nola egituratzen da bizi garen jendartean? Normaltzat saldu diguten haitz gogor horren erraietan ez ziren gustura sentitzen, eta galdera horiei erantzun bat xerkatu nahian, Arrakala proiektua abiatu zen. Haitzaren arrakalak azaleratzea zuten helburu, eta horretarako hetero-arauaren inguruko gaiak jorratu dituzte, hala nola, familia eta elkarbizitza egoera ezberdinak, desira aukerak, identitateak eta sexu/genero sistemak guzi honetan duen eragina.
Qu'est-ce que la norme hétéro ? Comment se structure-t-elle dans notre société ? Mal à l'aise dans la normalité qu'on veut lui imposer, et dans l'objectif de répondre à ces questions, un collectif a mis le projet Arrakala (la faille) en place. Ce documentaire traite des thèmes liés à la norme hétéro : les différentes situations familiales et de vie en commun, les occasions de désir, les identités et l'influence du système sexe/genre sur tout cela.

GURE SOR LEKUAREN BILA



11/21
18:00 - (75')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Josu Martinez – 2015
Hizkuntza / Langue : euskara & français
Azpitituluekin / Sous-titres : français

Hazparne, 1956. Euskal Herriaz euskaraz egin dokumental bat estreinatu zen herriko zineman. Ondoko hilabeteetan Iparraldeko herrietan, Parisen, San Franciscon edo eta Dakarren proiektatu bazen ere, haren arrastoa misteriotsuki desagertu eta denek ahantzi zuten laster. Hirurogei urte berantago, Josu Martinez zinemagilea haren bila hasiko da.
Hasparren, 1956. Le cinéma local projette en avant-première un documentaire sur le Pays Basque, en basque. Les mois suivants, il est projeté dans d'autres communes d'Ipar Euskal Herri, puis à Paris, à San Francisco ou à Dakar. Pourtant on a mystérieusement perdu la trace du film et il tombe rapidement dans l'oubli. 60 ans plus tard, le réalisateur Josu Martinez part à sa recherche.

AMAMA



11/21
21:00 - (103')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Asier Altuna- 2015
Hizkuntza / Langue : euskara
Azpitituluekin / Sous-titres : français

Familia bat, bi mundu. Jatorri bat, bi norabide. Baserria eta hiriaren arteko borroka, tradizioaren eta bizimolde berriaren arteko gatazka, buraso eta seme-alaben arteko ez ulertzea. Bizitza konprenitzeko eta hari buru egiteko bi manera, bat bestearen kontra. Eta badoan mundu baten eta heldu den beste baten aitzinean, lekuko isil, amama.
Une famille, deux univers. Une origine, deux orientations. Le conflit entre monde rural et monde citadin, le choc entre tradition et modernité, l'incompréhension entre deux générations. Deux manières différentes de faire face à la vie. Entre un monde qui disparait et un autre qui s'installe, un témoin silencieux : la grand-mère (amama).

BINGEN



11/22
10:00 - (95')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Ander Odriozola - 2014
Hizkuntza / Langue : euskara
Azpitituluekin / Sous-titres : français

Bingenek, Bilboko enpresa industrial batean gogor lan egiten du, baina bere neska-lagunak, Norak, Bilbo modernoko arte gaiak baizik ez ditu miresten. Bingen, jeloskor, kioskoan kurtso-bilduma erosi eta margotzen hasten da, Noraren interesa berreskuratzeko...
Bingen travaille dur dans une entreprise industrielle à Bilbao, mais sa petite amie, Nora, n'a d'yeux que pour l'art du Bilbao moderne. Bingen, jaloux, achète au kiosque un fascicule de peinture pour débutant et se met à peindre pour impressionner Nora...

MARGODANTZA

11/22
15:00 - (16') & (15')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 0 €

Zuzendaritza / Réalisation : Oskar Alegria - 2015
Hizkuntza : elkarrizketarik gabe / sans dialogues

Jon Maya dantzariaren laguntzari esker, zazpi margo tindatu dira zangoak erabiliz. Itxura horiek guziak aldatu eta, azken finean, margolan handi batean txertatzen dira. Zer gelditzen da lurrean dantzariak ferekatzen duenean eta honen gainetik ibiltzen denean, pintzel baten pare? Zazpi obra horiek zazpi erantzun dira, bai eta zazpi galde berri ere.
Avec le concours du danseur Jon Maya sept tableaux ont été peints avec un seul outil : les pieds. Toutes ces formes évoluent et, au final, s'intègrent dans une grande toile. Que reste-t-il sur la terre quand le danseur la caresse et la survole tel un pinceau ? Ces sept œuvres sont sept réponses, mais aussi autant de nouvelles interrogations.

GALTZERDI BERDEAK

Zuzendaritza / Réalisation : Oskar Alegria - 2015
Hizkuntza : elkarrizketarik gabe / sans dialogues

Filipe Oyhamburu Biarritzen bizi da. Anarkista konbentzitu, koreografo eta musikari izateaz gain, Oldarra, Olaeta eta Etorki dantza talde eta abesbatzen antolatzaile eta zuzendaria izan da, haiekin munduko itzulia eginez. 94 urtetan, segitzen du kasik egun guziez igeri egiten eta euskara klaseak ematen etxera etortzen zaizkion ikasleei. Galtzerdi Berdeak omenalditxo bat da, begi kliska adiskidetsu bat haren oroimen bizi neurrigabeari.
Filipe Oyhamburu, anarchiste convaincu, chorégraphe, musicien, vit à Biarritz. Il a été l'organisateur et le directeur des ballets et des choeurs Oldarra, Olaeta et Etorki, avec lesquels il a fait le tour du monde. À 94 ans, il nage presque tous les jours, et il dispense encore des cours de basque à ceux qui se rendent chez lui. Galtzerdi berdeak est un petit hommage, un clin d'oeil complice à son immense mémoire vivante.

GERNIKA BATAILOIA



11/22
16:00 - (70')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Iban Gonzalez – 2015
Hizkuntza / Langue : euskara & castellano
Azpitituluekin / Sous-titres : euskara

1945ean, Euskadiko Gobernuak erbestetik batasun militarraren alde egin zuen Europako Historian mehatxu handiena izan zenari kontra egiteko, hots, okupazio Naziari. "Libertad" batailoiarekin batera, ideologia guzietako gudariek helburu bakar batekin haien bizia arriskuan ezarri zuten: askatasunaren alde borroka egitea. Asmo eta jomuga horretan, Gernika Batailoia denen gainetik nabarmendu zen: EAJko gudari abertzaleak, EAE, sozialistak, anarkistak... denak ere mihise eta helburu berdin baten azpian.
En 1945, face à l'occupation nazie, la plus grande menace qu'a connue l'Histoire de l'Europe, le Gouvernement basque fait le choix de la coalition militaire avec des militants d'idéologies différentes afin d'atteindre le même objectif : la liberté. Dans ce projet, la contribution du Bataillon Gernika constitué par des abertzale d'EAJ, des socialistes, des anarchistes... tous réunis sous le même étendard est particulièrement remarqué...

IZARREN ARGIA



11/22
18:00 - (97')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Mikel Rueda - 2010
Hizkuntza / Langue : euskara

Victoria 1938an ahizpa eta semearekin Saturrarango presondegian sartu emazte errepublikanoa da. Presondegia seroren eta Pantera Zuria zuzendariaren ardurapean da. Victoriari semea kenduko diote eta frankisten gehiegikeriak ere jasanen ditu. Semearen berreskuratzeko esperantzarekin borrokatuko da. Izan ere, dena galdu dugunean, itxaropenak soilik salba gaitzake.
Victoria est une républicaine incarcérée en 1938 à la prison de Saturraran avec sa sœur et son fils. La prison est sous les ordres de « bonnes » sœurs et de la Panthère Blanche. Elle sera séparée de son fils et subira les pires humiliations qui la marqueront dans sa chair. Elle luttera avec l'espoir de retrouver son fils. Car quand tout est perdu, seule l'espérance peut sauver.

PIKADERO



11/22
21:00 - (98')
Haritz Barne
Prezioa / tarif : 3 €

Zuzendaritza / Réalisation : Ben Sharrock - 2015
Hizkuntza / Langue : euskara
Azpitituluekin / Sous-titres : english

Dirurik ez duen bikote batek arazo larriak izanen ditu burasoen etxean ezkontza-eginbideak betetzeko. Zailtasun horiek kordokan ezarriko dute lehertzen ari den ekonomiatik libratzen entseatzen ari den maitasun istorio bat.
Deux jeunes sans le sou qui vivent encore chez leurs parents, désespèrent de ne pas avoir de moments d'intimité. Cela remettra en cause cette histoire d'amour qui tentait pourtant d'échapper à un contexte économique qui s'écroule.